

Irailaren 10a: Suizidioaren Prebentzioaren Nazioarteko Eguna


2009an, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean suizidio tasa 2,6koa zen (100.000 gazteko) EAEn, Europako batez bestekoa baino baxuagoa (4,9) eta Espainiako tasaren antzekoa (2,1)

Suizidioaren Prebentzioaren Nazioarteko Eguna dela-eta, suizidioak 15 eta 19 urte bitarteko gazteengan duen intzidentziari buruzko datu batzuk kaleratu nahi ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#).

Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzaren mendeko [Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzuak](#) emandako datuen arabera, 2009an 15 eta 19 urte bitarteko 2 gazte hil ziren EAEn suizidioa dela-eta.


15 eta 19 urte bitarteko gazteen suizidioaren ziozko hilkortasun-tasa espezifiko 2,6koa da (100.000 gazteko), Euskadiko biztanleria osoarena baino apalagoa (7,68).

Tasa hori Europako 15 eta 19 urte bitarteko gazteen batez bestekoa (4,9) baino txikiagoa da, eta Espainiako tasaren antzekoa (2,1).



Gizonen eta emakumeen arteko aldea da daturik esanguratsuena eta gazteengan suizidioa prebenitzeko inplikaziorik handiena duena. Mutilen suizidio-tasa neskeena baino askoz handiagoa da: emakumeen tasa Okoa izan zen 2009an EAEn eta mutilena, aldiz, 5,1ekoa izan zen 15 eta 19 urte bitarteko 100.000 mutil gazteko.

Europar Batasuna osorik hartuta, berriro ikus daiteke gizon gazteen tasa emakumeena baino handiagoa dela (7,4 eta 2,3, hurrenez hurren, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean).



Hori dela eta, ondoriozta daiteke gizona izatea arrisku-faktorea dela, bai eta beste heriotza-kausa edo aztura batzuen kasuan ere: trafiko-istripuak edo droga-kontsumoa, kasu. Suizidioaren prebentzioak, beraz, genero-aldeei erreparatu beharko die.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

